



LEHEN HEZKUNTZAKO 2. zikloa: IPUIN SARITUA

ORTZERRI. Jon Goldarazena Santxez.

Duela milaka urte, Nafarroako Erresuman, Iruñean, Antso Handia bizi zen. Bazuen Huai Beltza izeneko bere soldatu taldea, haien artean buruzagia zena Joanes Errokoa edo Burdinesku deiturikoa, bere oldarkortasunagatik.

Egun batean, Antso Handiak pentsatu zuen pertsonaia mitologikoak herri batean biziko zirela agian. Herri hori aurkitu nahi zuen eta Ortzerri deitu. Horretarako Huai Beltza bidali zuen, baina Joanes kexatu zen:


—Nola aurkituko dugu?

—Euskal Herria osoan egon daiteke— esan zuen gerlari batek.

—Uste dut Lagdon dagoela— erantzun zuen Antsok.

—Seguru al zaude?

—Bai, ondoko herriko jendea beldurrez josita dago pertsonaia mitologikoak Lagdo inguruan daudelako.



Eta bidaia handi bat hasi zen. Iruñeko Merinaldea pasa behar zuten Pirineotako Lagdora iristeko. Bost asteko bidaia zeukaten aurretik. Soldadu batek hau esan zuen:

—Garraldan janaria eta armak hartuko ditugu.

—Ez!— esan zuen Joanesek. Eta zalditik bota zuen. —Lagdora segi behar dugu eta behar denean geldituko gara.

Eta segi egin zuten haien bidean eta, egunak joan eta egunak etorri, Lagdora iritsi ziren. Baina gosez zeuden eta ondoko herrira janariaren bila joan ziren. Ondoko herrian jendea beldurtuta zegoen, toki haietan Basajaun eta Sugoï egoten zirelako. Joanesek postu batean sartu eta han esan zuen:

—Eman janaria Antso Handiaren izenean!

Dendariak, beldurtuta, janaria eman zion eta abisu bat: ez hurbiltzeko Lagdako kobazulora, gauza arraroak gertatzen zirelako. Baina Joanesek, irribaretsu, pentsatu zuen.

—Hor egongo ote da Ortzerriko atea?

Eta korrika joan zen egiaztatzera. Iritsi zenean, Marik gelditu egin zuen eta gauza bat eskatu zion:



EUSKARAZKO IPUINEN
XIX. HAUR LEHIAKETA.
BERRIOZAR, 2015

—Ez esan inori existitzen garela, mesedez.

—Zergatik?— galdetu zuen Joanesek.

—Lasai bizi nahi dugulako.

Eta Joanesek zin egin zuen ez ziola inori esango.

Herrira itzuli zenean, soldaduei esan zien ez zegoela ezer eta Iruñera itzuli ziren. Horrela Ortzerri mitoa izan zen.

Egia ala gezurra, bi begien artean sudurra.